

# NAFARROA



Xanti Zabala, «Lexo»

○ Nafarroa zugana nator kontu kantari bertsotan;  
ea argia aunditzen dudan zenbaiten begi lausotan.  
Nafartasuna goraipatuaz dabiltz hitz legun gozotan;  
nolabait ere sartu naiez zu berek nai duten lazotan.

Nafarru ez da Euskal Herria Nafarru Nafarrua da;  
aho betean ori esanaz batzuk lasai dabiltz ara!  
Horrelakoek tontoak dire edo bestela gu gara;  
komeniko da iritzi batzuk ateratzea plazara.

Zure zelai ta basoak izan dira euskaran testigu;  
antzinakoen mintzoa dela nork aitortuko eztigu.  
Hizkuntza zaharrak gero izan du Nafarrun ainbat kastigu;  
Nafartasunen babes zaleek artu baizuten katigu.

Ainbat burruka egin duzu ta etsaiak bazaitu auldu;  
itxaropena bear zenduke berriro zugan ugaldtu;  
Etorkizuna zeurea duzu bide berriari heldu;  
zori onean nortasun dena inoiz ez baituzu galdu.

Besteak beste zu zara herri zapalduen imajina;  
burua jaso nai zenduke ta gertatzen zaizu ezina.  
Erreinu zaharran jabetasuna kendu zizuten, zer mina!  
okerragoa hizkuntza berriz ia utzi desegina.

Zenbat herrixka zure altzoan euskara galdu dutenak;  
«somos Navarros» diote orain lehen euskaldunak zirenak.  
Gora Nafarru konforme nago baina baturik ahalmenak;  
jokatu zazu kontura bitez Euskadi zarela denak.

Zu Nafartutzen saia direnak ez zaituzte ez zu maite;  
bertsolarian esaldi hontan ziur ziur egon zaite.  
Bestela zuri eta euskarai nola egin ainbat kalte;  
zentralismoan bidez erderaz mintzatu arazi arte.

Ilunabarrai deitzen diozu zentzu handiz «arratas behera»;  
«leher ari du» euri jasari; zer mardula esaera!  
«Arrats beheran» ondorioaz dator egun sentiera;  
«leher aritzeak» berekin berriz eguzkien erteera.

Aspaldi hontan «leher ari du» dago giro euritsua:  
baina nozbaite atertuko du kenduz odeian pixua.  
Arnas berriaz abertzaletu biur lehen bezain ahaltsua;  
«arrats behera» badoa dator eguzki dizdiratsua.

Zuk dintasunez eraman duzu ezarri dizuten zama;  
oraindi ez du inortxok ere zu menderatutzen asma;  
Zure aurrean auspeztutzero honek umilki narama,  
Nafarrua zu nola bai zaren Euskal Herriaren AMA.

Poeta baten oroitzeak gaur dakar bertsozko agurra;  
horra Nafarruz iritzi batzuk bertsolarian apurra.  
Nafarru ez du Euskadin puxka zeinen esaldi makurra;  
Paris edo Madrila ote? XALBADOR JAIO ZEN LURRA.

**XANTI ZABALA «Lexo»**